



Udal aurrekontua 2021.

Abotsanitzen proposamen nagusiak

1. Bidasoa Oarsoko Industrialdea erakundearekin bat egin
2. Zezen Plazako lurrazpiko aparkalekuaren proiektua idatzi
3. Damarrin babes ofizialeko 86 etxebizitza eraiki
4. Nerabe eta gazteentzako kultur programazio zabala sortu: zinea, antzerkia, kontzertuak
5. Mendeluko etxebizitzaren diagnostikoa eta ekintza plana egin
6. Talaia-Satarka eskolako patioan aterpea eraiki
7. Eguzki plakak eraikin publikoetan (Muliata, futbol zelaia, elkarteak...) jartzeko azterketa egin
8. Alde Zaharreko eraikin bat erosi Artearen Etxea bilakatzeko
9. Berdintasun Saila sortu eta Berdintasun teknikaria kontratatu
10. Covid laguntzak enpresa guztiei zabaldu, prozedura hobetu, kantitatea handitu, eta kontsumorako bono-laguntza propioak kaleratu
11. Kaleko komunak jarri Damarrin, Europa pasealekuan, Portuan, eta pertsona helduen paseotan: Biteri-Ttarrattenea, Puntala-Bidasoa eta Jaitzubia
12. Azokarentzako estalperako parte hartze prozesua burutu
13. Amuteko doaneko aparkaleku disuasoriorako proiektua idatzi
14. Arrantzale Auzoko eta Kosta kaleko hirigintza proiektuak idatzi
15. Autobusa behar-beharrezko zerbitzua izendatu, eta martxan jartzeko urratsak eman
16. Muliatako udal jabetzako partzelan helduentzako pisu tutelatuak eraikitzeko proiektua idatzi
17. Gizarte Zerbitzuetako departamentuko beharren diagnostikoa egin, plan estrategikoari begira
18. Kasino Zaharreko kanpoaldean ibilbide irisgarria sortu eta ariketetarako aparatuak jarri, eta herriko hainbat bankuetan pedalak jarri
19. Saindua gaztelekuko obra burutu
20. Nerabeentzako euskarazko jarduera sozio-kulturalak antolatu
21. Hezkuntza zentroetan, euskarazko errefortzu programa sortu
22. Formatu txikiko blues jaialdi bat antolatu (eta gatazka konpontzeko urratsak eman)
23. Aurrekontu parte-hartzaileen programa abiatu. Herritarrek erabakitzea zertan inbertitu 500.000 euro
24. 600-900 euro arteko alokairuentzako diru-laguntza linea bat sortu (egungoak ez du arrakastarik, 600etik beherakoentzat soilik delako)
25. Kultura pizteko ekitaldiak antolatu eragileekin batera, batez ere auzoetan